



Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaiak karrerako funtzionario izendatzeko agindua laster argitaratuko denez EHAAn (2023ko azaroaren 27ko astean), lanpostuaz jabetzeari eta horren inguruko gainerako gaiei buruzko jarraibide hauek ematen dira:

- 1º) Hautatutako pertsonak 2023ko abenduaren 1ean karrerako funtzionario gisa jabetu beharko dira lanpostuaz, behin-behinean esleitutako lanpostuan, bai bertan zerbitzua ematen ari badira, bai zerbitzua ematen ari ez badira, lizentzia edo baimen bat dutelako edo lanpostua gordetzea dakarren zerbitzu aktiboaz bestelako administrazio-egoera batean daudelako.
- 2º) 2024/2025 ikasturtean behin betiko destinoa lortzeko, karrerako funtzionario guztiek parte hartu beharko dute 2023ko abenduaren 1ean deituko den lekualdatze-lehiaketan; deialdi horretan aurreikusitako merezimenduen baremoaren arabera ordenatuko dira.
- 3º) Lizentzia edo baimenekin daudenak 2023ko abenduaren 1ean jabetuko dira karguaz, eta egun horretatik aurrera kasuan kasuko lizentzia edo baimena izaten jarraituko dute (amatasuna, aitatasuna, aldi baterako ezintasuna, sindikatu-liberazioa, Irale, etab.), lanpostuaz jabetu aurretik ezta ondoren administrazio-izapiderik egin behar izan gabe.
- 4º) Zerbitzu aktiboaz bestelako administrazio-egoeran daudenak (zerbitzu bereziak, eszedentziak, etab.) 2023ko abenduaren 1ean jabetuko dira lanpostuaz, eta lanpostuaz jabetu aurretik zuten administrazio-egoeran jarraituko dute.
- 5º) Seme-alabak zaintzeko aldi baterako eginkizun-gabetze egoeran daudenak 2023ko abenduaren 1ean lanpostuaz jabetuko dira, eta seme-alabak zaintzeko eszedentzia eskatu beharko dute, karrerako funtzionarioen izendapena EHAAn argitaratzen denetik aurrera.
- 6º) Irakasleen kidego bateko karrerako funtzionario izanik, egonkortze-prozesu honetan beste irakasle-kidego bateko karrerako funtzionario izango direnek 2023ko abenduaren 1ean jabetu beharko dute lanpostuaz. Pertsona horiek lanean jarraituko dute, ofizioz, orain arteko kidegoan, 23-24 ikasturtean, kontrakoa adierazi ezean. Norbaitek kidego-



aldaketa eskatu nahiko balu, Hezigunea – Tramitaguneraren bidez baliatu beharko du aukera hori, karrerako funtzionarioen izendapena EHAAr argitaratzen denetik aurrera. Kidego berrian jardunean jarraitzea aukeratuz gero, behin-behinean esleituko zaie lanaldi osoko lanpostua, ikasturte osorako, puntuazio txikiena duen hautagaiak betetzen duena.

- 7º) Berritzegunen, Iralen, Ingurugelan, ISEI-IVEIn, Urdaibain eta OBTHn zerbitzu-eginkizunetan dihardutenak 2023ko abenduaren 1ean jabetuko dira lanpostuaz, eta zerbitzu-eginkizunetan esleitutako lanpostua betetzen jarraituko dute.
- 8º) 2023ko abenduaren 1ean eginkizun-etenaldiko zehapen irmo bat betetzen ari direnek ezin izango dute egun horretan kargu jabetzea formalizatu, eta zehapen hori bete arte atzeratuko da.
- 9º) Adierazitako egunean lanpostuaz jabetzen ez direnek egonkortze-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubide guztiak galduko dituzte, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Horrelako kasuetan, eragindako ikastetxeak horren berri eman beharko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.
- 10º) Aginduen 8.3 eta 8.4 oinarrietan aurreikusitako osasun-azterketan ebaluatu ezin izan direnak, ezinbesteko arrazoiengatik (aldi baterako ezintasuna...), Hezkuntza Saileko Prebentzio Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko dira ezinbesteko egoera amaitzen denean, osasun-azterketa egiteko. Karrerako funtzionarioen izendapena eta karguaz jabetzea atzeratuta geratuko da, harik eta azterketa hori egin eta gai gisa kalifikatu arte.
- 11º) Lanpostuaz jabetzeko eginbideak pertsona hautatuek lanpostua esleituta duten ikastetxeetako zuzendaritzetan sinatuko dira, destinoa esleituta ez duten pertsonak eta instrukzio honen 7. apartatuko kasuan daudenak salbu; azken kasu horretan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lakuako egoitzara joa beharko dira, lanpostu jabetzea formalizatzeko. Lanpostuaz jabetu aurreko egunetan, atal honetan adierazitakoari buruzko jarraibide osagarriak argitaratuko dira.

2023ko azaroaren 14a, Vitoria-Gasteizen

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZA